

III'gn Euskerazko Idatz-Leiaketan

Jose Arregi euskalerriko txapelduna

Hirugarren aldiz, Coca-Cola'k, beste elkarte ezagun batzuen laguntza, antolatuta zuan Euskerazko Idatz-Leiaketa ospatu da arestian.

Probintzi bakoitzak egin zuen bere Leiaketa, ta Probintzi bakoitzan dauzkagu irabazleak. Bizkaiko txapelduna JOSE ARREGI da.

Baiña ez hori bakarrik. Aginduta zegoan bezela, Printzi guztiak, bate-giñik, onena aukeratu behar zuten, Euskalerrri guziko txapelduna ezagutu ahal genezan. Orain ba dakigu nor dan: JOSE ARREGI bera.



Jose Arregi gipuzkoarra da, baiña Bizkaian, pasakari bezela, bizi da. Gernika alboan dagon Forua herriko frantziskotarren ikastetxean ikasten du. Hortik pasatu diren beste euskaltzale askoren atzetik dator, hoiak danak jo ta pasatzeko asmo ta kemenarekin segurasko. Bejondaizula! Ezagutu dezagun gure mutilla.

—Zure izen-abizenak?

—Jose Arregi ta Olaizola.

—Nungoa zera, Jose?

—Azpeiti'koa. Oinartz-baillerako Gerrazuri baserrian jaioa.

—Zenbat urte dituzu?

—Amabost, azaroaren 7'an egiten ditut amasei.

—Dakidenez, frantziskotar apaiz-karrera egiten ari zera. Zenbatgarraren urtea daramakizu?

—Orain bosgarrenkoa bukatzen ari naiz. Hiru Arantzazun egin nituen eta hemen Foru'n beste bat. Eta orain ari naiz hemengo azken urtea bukatzen. Gero udazkenean Zarautzera joango naiz abitua artzera.

—Zure bizitzako gora-beherak ezagutuzta emanik, goazen orain jaso duzun Sariari dagokion gaiaz mintzatzera.

—Idazteko zaletasunik ba al duzu?

—Bai, dexente. Orain artean euskera ikasteen horixe egin dut gehiena, idatzi.

—Eta idazten duzunean, zer egiten duzu errezago: narrazioa ala deskribzioa?

—Beti ere errezago zait narrazio bat egitea. Baiña deskribzioak gehiago lantzen ditut, eta hobeto iritezten zaizkit.

—«ZERUKO ARGIA» ezagutzen al duzu?

—Bai, oso interesantea da.

—Eta errebista hortan zer da zure gustokoena?

—Gazte naiz» da gehien gustatzen zaidana.

—Eta JAKIN aldizkaria irakurtzen al duzu?

—Baita. Noizean bein artikulo batzuk. Gai asko darabilzki, eta diotenez oso ondo.

—Nun ikasi duzu euskeraz idazten?

—Etxetik Kolejiora joan nintzean ez nuan batere idazten. Kolejioan Aita Biktoriano Gandiaga'rekin asi nintzan aurreneko idazlanak euskeraz egiten. Euskal idazle jator honekin hiru urte egin nituen. Eta laugarrena Aita Dionixio Arruti'kin. Orain berriz, bosgarrenko urte hau, Joxe Luis Zurutuza'rekin.

—Zeintzuk izan dire, zure ustez, euskera-arloan on-egin dizuen maixuek?

—Batez ere hor goian aiatu dituduen hiru hoiak. Eta nola ez nere gurasoak. Danai esker bero bero bat biotz biotzetik.

—Asko idazten al duzu euskeraz?


—Profesoreak agintzen dizkigun idazlanak eta baita eskutitzak ere.

—Azken galdera. Leiaketara presentatu zifanean irabazi zenezaken pentsatu al zenun?

—Egia esateko, batez. Zenbat momentutan leiaketarako ez idaztea pentsatu nun. Ta irabazi nuela esan zidatenean ere ezin nuan sinistu, ta beste norbait izango ote zan pentsatzen nun.

—Ba, ez; ikusten duzu, Jose, ez dala beste bat irabazle nori. Zu zeu zera. Ta zorionak! Hemendik aurrera euskeraz idaztera behartua zaude, arrazoi askogatik. Nun idatzi ba daukazu, zer idatzi ere bai; ikusten dugunez, nola idatzi ere. Beraz, idatzi, idatzi egin behar duzu. Irabazi-berrri duzun sari hau lore bat da. Uda-berrriak ere udan eman ohi du fruitua. Zu udaberrian zaude, loretan. Zure udaren zai geratzen gera, irrikiz.

JOAN MARI TORREALDY



Apellaniz'tar kepa txapelduna nor dan?

Ba'litzake batek baiño geiago, batez bere gaztien artian, gure idazlanixu ontan argitalduten dogun kiroltar au nor dan itanduko dabena. ezatalako aspaldian bere izena kirolketa iragarkietan ikusi. baiña, esaten dogunian, laster gogoratuko dira.

Galdakao'k beti euki dau kiroltar urtunen bat, ospetsu egin danen bat, ostikoketan, txirringularizan eta indarketa edo atletismoan; araba, oeneitariko bat dogu Apellaniz'tar Kepa gizon langillia, argija ta zindua, azkon edo jabalina jolasan urte askotan trebiana, Bizkaia'n da España'n txapeldu izandakua. Eta beste laterri askotan be gorengo mallatan ezaguna izandakua: Galdakaotar jatorra ta euzkaldun zintzua.



Orain egun batzuk juan nintzan beregana, anai tartian Usansolo'n daukan lantegira ta, esan neutsan: —Kepa, badakit aldi egokia ezana zutaz itz egiteko, orain betiko galdu barri dozun ama kutunatzako samina kendu barik dozuleko, baiña. zutaz lerro batzuk ZERUKO ARGIA'n idatzileko, etorri naz esan nai ba'daustazu zerbait.

—Bai ta. pozik erantzungo dautsut, itandu nai dozune.

—Aspaldiz gutziz itxita zagozala esan diteke zuk ain maite izan dozun kirola, azkon edo jabalina jolasa, "zar" egin zarelako edo beste er-gozpen bategatik?

—Eztoz uste berrogei ta lau urtegaraz zara naizenik. ze, egunero sorketa (gimnasia) ta gertakizunak egiten dotlazen ezketiño, ondo aurkitzen naz; jazoten dana da, lan asko daukagula gure kategoria, da, gainera orain urte batzuk biurkada bat egin neban belau baten bai ta, min emoten eustan ezketiño, itxi egin biar izan dot, naita maite neban kirol garbi oi.

—Noztik zera kirolari?

—Txiki-txikitatik geiago, baiña, azkon-jaurtitzalle amasei bat urtedun nintzala.

—Zenbat bidar izan zara Bizkai ta España'ko txapeldun?

—Bizkaik'ua amairu edo amalau bidar eta España'kua amabitan.

—"Olinpiada"n alde artua zera, zenbat bidar da non?

—Baten, London edo Londres'en. Wenbley landan ospatu zan Olinpiadan.

—Olimpiadan baten baiño izan etzarren, beste uri ta lurralde askotan be izan zera.

—Bai orixel Viena'n, Austria-España arteko jolasketan; Lausana'n, Suiza-España artekan, Belgike'n, Portugalenas kotan, France'ko egodaldeko Tolouse, Tarbes, Pau, Euskalerrriko Bayona'n da abar; argibide geiago emongo neuskitsuz etxian ba'genkoz baiña, oraintxe enaz danatz gogoratutzen.

—Ezteko ardura, gauko naikua da. Garaipen asko lortu dozuz atzerri aldiian?

—Bai ta ez, lenengokuak, bigarrenak ta irugarrenak, eta atzeragokuak, guztitarikuak.

—Indarkari edo atletari onik asko ikusiko zenduben ibilli zeran erri-aldiutan ezta?

—Bai, onenatarikuak, baiña, danak gogoratzen ezta erreza ta, gainera luze egingo litzake zure idazlana, urrango baten atzitzuago esango doguz.

—Ederto, orretara egingo dogu, beste kirolki egindozu?

—Bai, ostikoketa, baiña, erri'ko kide edo ekipoi laguntzarren.

—Ostopo edo kaltegarri izan yatsu kirola beste lan da eginbiarratar kirola?

—Ezta ezetan be! ongarrri, burua argi ta gorputza zinduago eukiten lagundu daustelako.

—Azken itaun bat. zer esango leuskiozu orduan eusko gaztedia?

—Kirol garbiak, zuk diñozun lez indarketa, mendigoizaletasuna, eusko pelota ta abar egin daiezala al daben guztian, ez txindia gaitik bakarrik, zaletasuna gaitik baiño, ongarrriak diralako gurputzantzat eta adimenak argitutzeko.

Guk be orretara esango genduke ta, idatziko dogu ia dibebatez zuk lez ziderrezko domiña, azken aldiian, zorionez, emon dautsuen lekua irabazten daben guztiak.

ALTUNA'TAR JOSU

